



DABID ANAUT ▶ EUSKARA TEKNIKARIA

«Hiztunak gozatu egin behar du hitz egiteko»

LEITZA ▶ Dabid Anauten 'Txokotik zabalera' saiakera argitaratu du Alberdaniak

LANA ▶ Euskara umorearen ikuspuntutik jorratu duela aitortu du ▶ 3



Bidegorria Alegian. N. URBIZU

TOLOSALDEA ▶

Tolosatik Ikaztegieta «seguru», bidegorri berriari esker

Txirrindulariek eta oinezkoek erabiltzen dute; Tolosa, Ikaztegieta eta Alegia batzen ditu ▶ 7



Lana amaitu ostean, agur esan du Olentzerok... datorren urtera arte

TOLOSALDEA ▶ Eskualdea bisitatu du iragan asteburuan ikazkinak; herri gehienetan egin dituzte ekitaldiak bere omenez ▶ 4-5

TOLOSA ▶

Akordeoi doinu «politik» Zerkausian

Isidro Larrañaga
orkestraren eskutik ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Haurrei zuzendutako jarduera ugari Gabonen oporraldian

Besteak beste, Tolosa, Ibarra, Irura, Anoeta eta Alegian antolatu dituzte ▶ 2



GIZARTEA ▶



Joan den urteetako Eguberrietan bezala, aurten ere Xakearen txokoa izango da Anoetan. HITZA

Gabonetan izango da zer eginik eta zer ikusirik eskualdean

Haurrak oporretan daudela aprobetxatuz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tolosa, Ibarra, Irura, Anoeta eta Alegian

ERREDAKZIOA

Eguberriak direla-eta gaztetxo asko oporretan daude. Hala, egun hauetan izango da zer eginik eta zer ikusirik Tolosaldeko herritan. Ikastaroak, jo-kuak, tailerrak etabar izango dira eskualdean.

ALEGIA

Gaurtik urtarilaren 5era arte. 10:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 21:00etara haurren eskulan erakusketa Kultur Etxean.
Bihar. 18:00etan ipuin kontaketa Udal Liburutegian.
Etzi. 19:45ean, Txintxarri txiki, Txintxarri eta Donostiako Mariaren Bihotza abesbatzen kontzertua.

IBARRA

Gaur. Oihulari Klown taldearen

eskutik ipuin kontaketa saioa. 11:30ean Benito Izaguirre kultur etxean.

Bihar. 11:30ean bideo emanaldia Kultur Etxean. 17:00etatik 18:30etara, San Bartolome plazan bizikletan ginkana.

Etzi. 10:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era haurrentzako jolas-parkea Belabietan pilotalekuan.

IRURA

Gaur. 17:30ean, haur antzerkia frontoian.

Bihar. 17:30ean erromeria haur eta gaztetxoentzat Irrintzi taldearekin, frontoian.

Etzi. 17:30ean, Trinketearen, eskulan tailerra 3 urtetik 11 urte bitarteko haurrentzat. Bestalde, irteera Gazte Topagunetik Txuri-Urdin Izotz Jauregira, 12 urtetik 17 urte bitarteko gazteentzat.

ANOETA

Hilaren 30era arte. 11:00etatik 13:00etara Gabonetako ludoteka.

Gaurtik etzira. 10:00etatik 11:00etara ikastolan, xakearen txokoa.

Bihar. 17:30ean, haur antzerkia frontoian. 17:00etatik 18:15era, aerobik eta batuka umeentzat, kiroldegian.

Etzi. 18:30etik 20:30era barretaria kiroldegian.

TOLOSA

Gaur. 10:00etan, Basket 3x3, Usabal kiroldegian.

Bihar. 17:00etatik aurrera, Gabonetako opari tailerra.

Etzi. 18:30ean, Trianguloko autobus geltokian Tau-Etosa Alikante.

Hilak 30, larunbata. 11:30ean, Kultur Etxeko dantza aretoan, Batuka.

GUTUN@K ▶

Kalitatezkoa, publikoa, eta erdigunean

Hauexek direlako, Ongizaterako Esther Larrañaga diputatuak (EAJ), Tolosako Jokin Beldarratz alkatearen laguntzarekin, itxi zizun Euskal Herria plazako gerontologikoak zituenez ezaugarriak.

Gerontologikoa itxi ondoren, beste erresidentzia batzuetara joatera derrigortuta ikusi ziren egoiliar eta haien senide gehienek keuxen oinarria berdina zelako, kalitate falta alegia. Eta guk, antzekotasun handiak ikusten ditugu, beraiek kezkatzen zireneko erresidentzien eta Tolosan eraiki nahi duguten erresidentzi berri honen artean. Kalitate eskasia, pribatua eta diru irabazi nahia duten erresidentzien ezaugarria izan ohi da.

Publikoak diren erresidentzietan iristen diren hamar pezetatik hamarrak egoiliarretan gastatzen diren bitartean, pribatueta hiru pezeta gutxienez enpresak berak jasotzen ditu. Argi dago edonoren etxean ere, ezin daitekeela kalitate berdina eskaini zazpi

pezeta edota hamar pezetarekin. Erresidentzien kasuan, honek zera esan nahi du: egoiliarren arretarako hamar auxiliar egon ordez, zazpi egongo direla; eguneko janarietarako hamar pezeta gastatu ordez, zazpi pezeta erabiliko dituztela; neguan berogailuak hamar ordutan eduki ordez, zazpi ordutan edukiko dituztela piztuta; eguneko erizainen ordu kopurua hamar ordu izan ordez, zazpi izan beharko dutela; etabar, etabar.... Guzti honek dakarren kalitatearen jaitziera-rekin.

4.000 pertsonen atxekimendua jaso genuen sinadura bilketan eta baita orain, aurkeztu dugun mozioan ere. Oso argi utzi nahi izan dugu, hurrena egingo den erresidentziaren ezaugarriak, KALITATEA ESKAINIKO DUENA, PUBLIKOA ETA ERDINGUNEAN KOKATURIK DAGOENA izan behar dutela. Horrela izango ez balitz, «OSO handia, OSO integrala, OSO europearra», eta «OSO» asko dituen zentro bat izanda ere, kanbioarekin %30 galduko bai gureke.

MANU LEUNDA ▶ EUSKAL HERRI PLAZAKO GERONTOLOGIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN

TOLOSA ▶ KULTURA



Gabonei hasiera akordeoiekin

E. Ezeiza ▶ Baserritarrez jantzita, Eguberriek ongi gertorria emanaz kontzertu berezia eskaini zuten Isidro Larrañaga akordeoi musika eskolakoek. Abesti ezagunak interpretatuz, giro atsegina zabaldu zuten Zerkausi guztian zehar. NEREA URBIZU

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria
Pablo Gorosabel, 40
1. gisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Telf. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak. 350m2etatik hasita.

Anoeta. 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

Belauntza. Bifamiliarra, bi solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.

Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Berastegi. Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

Berastegi. Famili bakarreko etxea

salgai, 4.000 m2ko lursailarekin batera.

Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.

Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

Irura. Eraikuntza berriko etxebizitza eta apartamentua salgai garaje eta trasteroarekin.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariek, garajea eta trastelekua duen etxebizitza.

Tolosa. Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua.

2 logela, 24 m2ko egongela, bainugela eta sukaldea.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugelarekin. Eraberritua.

Tolosa. Korreo kalea, 2 logelako etxebizitza salgai. Eraberritua. Prezio interesgarria.

Tolosa. Santa Klara, 90 m2ko etxebizitza salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Ugarran Goena, berritu beharreko baserria salgai. 3 solairu, 110m2 bakoitzeko.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko errezitasunekin.

9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Maituna zaharra, 15 garaje berri eta itxiak, 30m2tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitzeko.

DABID ANAUT ▶ EUSKARA TEKNIKARIA

«Hiztunak hitz egiteko eroso sentitu eta gozatu egin behar du»

Alberdania argitaletxeak Dabid Anauten lehenengo saiakera argitaratu du: 'Txokotik zabalera'

NAIARA GARZIA

Hamahiru urtez Leitzaldean eta Bortzirietan euskal teknikaria izan ondoren, gaur egun Elhuyar Aholkularitzako teknikari bezala dihardu Dabid Anautek (Burlata, 1968). Aurretik, iragan azaroan, euskararen inguruko bere lehenengo saiakera argitaratu zuen eta joan den ostiralean aurkeztu

zuen Leitzan: *Txokotik zabalera*.

Liburuaren ideia nola sortu zen?

Pixkanakako gauza bat izan da. Baneuzkan euskararen inguruko gai batzuen gainean gogoeta batzuk eginak eta idazten hasi nintzen, baina hasieran ez nekien liburu bat izan behar zuen edo zer zen. Buruan neuzkanak jasotzen hasi nintzen eta gero hori pixkanaka liburu bihurtu da, baina ez da hasieratik erabaki oso konzientea izan.

Umorearen ikuspuntutik fokatu duzu lana. Euskararen egoera ez da ikuspuntu horretatik oso malaz jorratu, ezta?

Nik uste ekarpena hortik etorri daitekeela. Normalean erabiltzen den doinua askoz ere serioagoa izaten da, eta gogorra, euskararen egoera ere horrelakoa delako. Ni beste bide bat hartzen saiatu naiz, hau da, gai honen inguruko gogoeta egiten, baina berrikuntza hortik dator. Alde batetik gaia sakontasunez lantzen saiatu naiz, baina umorearen bitartez ere, oreka hori bilatzen.

Ikuspegi horren beharra sentitzen al zenuen?

Natural xamar atera zaidan gauza bat da. Oso modu gogorren eta tragikoan bizi dugu euskararen gaia, eta nik uste hor gabiltzanoin komeni zaigula



A. CANELLADA/ARGAZKI PRESS

tarteka ere umore pixka batekin hartzea, gero lanari jarrera baikor batekin heltzeko. Ez zait iruditzen gai honekin beti barrezka aritu gaitekeenik, baina tarteka bai eta proposamena hori da, gutxienez batzuetan modu horretan aritzea.

Zer gai jorratu dituzu?

22 kapitulu daude, denak euskararekin erlazionatuta. Bakotzak gai bati heltzen dio, euskararen gaia oso zabala baita eta alde askotatik heldu diot. Broma gain, proposamenak, irizkiak... ere badaude, ez da txiste hutsa.

Filologoak eta bestelako figurak superherolekin parekatzen dituzu, zer helbururakin?

Kapitulu horretan euskalgintzaren inguruan hitz egin nahi nuen. Euskalgintzako korron-

teak bere horretan eta betiko moduan aurkeztu beharrean ironiarekin pixka bat jokatzeko figura horiek sortu ditut. Horien bitartez azkenean euskalgintzan gabiltzan jendearen pentsatzeko eta lan egiteko modua irudikatzen da. Broma horrek atzean ere badu errealtatearen islada.

Kalean hitz egiten den euskararen eta euskaraz burokratikoaren arteko aldea gero eta handiagoa al da?

Badago aldea, baina egon behar du. Euskarak erregistro eta hizketamolde ezberdinak behar ditu, bat burokraziarako, eta beste bat kalerako. Askotan arazoa da ez dauzkagula erregistro ezberdinak, burokraziarako behar den euskara kale-rako erabiltzen dugula, edo alderantziz. Nik uste ezberdina

izan beharko lukeela, kalean erabiltzen dena, edo bulegoan, eta hori falta zaigu. Badakigu bulegoko hizkera erabiltzen eta gero kalekoa falta zaigu, edo alderantziz.

«Ez badugu euskararekin disfrutatzen ez dugu inolaz aurrera egingo», esan duzu argitaratu duzun beste elkarrizketa batean.

Hizkuntza batek arauak eta zuzentasuna behar ditu, baina horrekin ere obsesionatu gabe. Horren garrantzia aitortu dago, baina bestea behar bada gutxi azpimarratu den kontu bat da. Hitztunak hitz egiteko eroso sentitu eta gozatu egin behar du. Nahiz eta konzientiaz oso euskalzale izan, ez badu hizkuntzarekin gozatzeko oso zaila izango da jendeak euskara egitea. Hori erabilerarekin oso lotuta dago: disfrutatzeke hizkuntza asko erabili behar da eta horretarako ere aukerak behar dira.

Obsesio kontu horrek zer ondorio ekar ditzake?

Kalitatea jomuga bezala jartzen badugu hitz egitekotan euskara bikaina hitz egin behar dela pentsatzea gerta daiteke. Gure buruari horrelako erronka bat jartzen badiogu oso zaila da gaur egun dagoen egoera soziolinguistikoa eskulako hiltun bikainak izatea. Horren aurrean gure hizkera kalitatezkoa izatea bilatu behar dugu, baina batez ere erabili egin behar dugu kalitatezko euskara izan nahi badugu.

Euskarak hizkuntz bezala duen arrisku nagusia nondik dator, barrutik ala kanpotik?

Nik uste kanpotik etortzen zaiola. Euskarak iraun egingo du, bolada batean behintzat, baina garatzeko eta zabaltzeko aukera ez dago ziurtatua. Irauteko adina bolada baterako badaukagu, baina etorkizunean zer etorriko den ez dakigu. Hizkuntzen arteko lehia etorkizunean gogorra izango da. Hizkuntza batzuk nagusitu egingo dira eta beste asko desagertu, eta hauen artean gurea egon daiteke. Inork ezin du esan alde horretatik lasai egon gaitzekeenik.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztienak prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberriak ▶

Uxue Arregi Irastorza

Izar bat agertu da
dizdiraz zeruan
keinuka ari zaigu
Izaskun aldean.
UXUE seaskan dago
bere lo gozoan
dizdirak argi dezala
betirako gure gogoan.

Uzturpe ikastolako langile, ikasle eta gurasoak.

IBARRUNTA, 2006ko abenduaren 27ean.



GABONAK ▶

Ikazkin onena, mendira lanera

ERREDAKZIOA

Olentzero joan zaigu, mendira lanera... edo auskalo Baina hurrengo urtean ere ia seguro berriro izango da denen artean, astoan, zaldian, gurdian, oinez, edo dena delakoa.

Haurtxoen aurpegi harritu eta ilurratuak ikusleko egun bikaina izan ohi da hilaren 24a: goxokiak, opariak eta sorpresak jaso dituzte hainbat umek, ikazkin magikoak nolabait ekarriakoaqu gaurak.

Gaztain erre artian ere igaro zuten arratsalde parteia ikaztegi-tara joan zirenek: aurretik Olentzero herri hau bistatzea erabaki zuten lehen aldiz, eta baita opariak banatu ere. Baina, ez zen bakarrik menditik jaitsi: Mari Domingiren laguntza jaso zuten herriko haurrei opariak banatzeko. Gaurainak eta adaria prestatu zituzten herriko bi elkarteetan artean eta hurbildu ziren gutxiak daudatu zuten prestakuntza gaitia: «Biruengo urtean berri antolatu-ko dugula zuz gaude, oso ondo alera baita dena, eta oso giro polita izan da», gogoratu zuten guraso elkarteekoe.



Ikaztegieta Olentzero eta Mari Domingi izan ziren opariak banatzen; Anoetan idiak ere izan ziren egindako aldarrikapenaren aurretik. «123»



Ikaztegieta Olentzero eta Mari Domingi izan ziren opariak banatzen; Anoetan idiak ere izan ziren egindako aldarrikapenaren aurretik. «123»

Albirturten artzainak zetozen herria: eskean aritu ziren denak, trikitizaren laguntza. Hitzaz egin bazaien ere, animatu ziren batzuz batzuk.

Adunaren eskolako umek gurasoekin eta irakasleekin ere kantatu zuten. 09:00etatik aurrera bolet eman zuten.

Olentzero eta presoak

Leaburun Olentzeroaren eta Mari Domingiren ondoren alera zuten argazkia hainbat herri-trek, Andoni Otegi herriko pre-soari orrugarri gisa bidaltzeko. Bide batez, Iñaki de Juana pre-soaren egoera gogoratu zuten.

«PSOÈren arduragabekeria» zela eta, Urtarrilaren 1ean ez-ker abertzaiek deituta, Larte mendira igoko dira, Euskal presoak Euskal Herria lelopean, 10:00etan abiatuko dira Leaburuko plazatik.

Anoetan goizean baserriz baserri alera zinen 95 bat la-

gun. Ondoren Goikoetxean bazkaldu zuten eta arratsaldean, lehenik aldarrikapenak egin zituzten, preso eta ihesla-riak etxera, Alirik ez! Anoetan eta Euskal Herrian euskaraz eta No Apartheid. PNV-EA la-purrak lelopean kalejira egin zuten, aurrean idi parea hartu-



Leaburun Olentzero eta Mari Domingekin alera zuten argazkia. «123»

rik. Ondoren, Olentzeroi lau kopia abestu zitakoten... Adunak, hotzari beldurrik izan gabe, baserriz baserri abesteko asmoan alera ziren. Egurdira arte abesten ibili zi-ren, eta herriarrei bistia egin zuten. Ondoren, Adunako Txubi elkartearen bazkaldu zuten, trikitixa eta akordeoi soinu alaiak lagunduta. Bertan jaso zuten dirua iheslarientzat izan-go da.

Ameak, Ugarten hasi eta herriarantz abatu ziren kanta-tzen, «presoan alde». Olentze-ro buruhandia kantatuz Txin-doki tabernan bukatu zuten amezkatarrek errenda, gabon gausa pozik igaro zezaten.



Adunak ere kantuan alera ziren herriar batzuk. «123»



Saskitikik ahora: Eguberrietako giroan Gabonetako zaporeak

Erredakzioa ▶ Urtero bezala, Altxoko Udalak saski bat zozketatu zuten albotzarren artean eta zerbaki sartuta Garbifur Muurari suer-tatu zaito aurrengoan. Izango du, bai, etxeko despretisa egun bat-zuetarako jaki goxoz beteta. Beraz, Altxoko Udaleren partez, zo-ri-onak sarritari eta on egun diezailola! «123»

hitza

Harpidedunen txokoa

HITZAK bere harpidedunen artean egindako zozketaren irabazleak:

- ▶ Marbu Bernabe Gorostidi (Txarama)
- ▶ M. Josune Zubeldia Gernaga (Tolosa)
- ▶ Martin Burralde Uria (Tolosa)
- ▶ Xuri Urtas Munia (Tolosa)
- ▶ Matx Echeberria Mendizabal (Berastegi)
- ▶ Edoñen Zaratag Agirretxe (Villabona)
- ▶ Idoia Olano Jauregi (Tolosa)
- ▶ Juan Mari Ezkiza Aiarz (Abizur)
- ▶ Lorenzo Galloberandina Martinez (Lizarza)
- ▶ Mendi Arriaga Labaka (Tolosa)

Joxe Mari Iturrakide idazlearen "Hyde Park-eko hizlaria"

HITZaren egoitzatik pasa zaitez zure liburaren bila!

Jaione Iruarrakide Mendizabal (Baztegieta)

Andres Arreg Zinkuneg (Villabona)

Juan Zeboro Urtaz (Tolosa)

Antxon Galloberria Urtaz (Irua)

M. Arambio Belarain Arizabalaga (Tolosa)

Margari Echebiri Juantxek (Lizola)

Milagros Lopezag San Sebastian (Irua)

Ana Belen Urtaz Agirretxe (Alkiza)

Josune Zubeldia Agirretxe (Tolosa)

Tere Larrarte Saratola (Irua)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

59'

1'

Eskatu 1717an.

Sartzena Euskaltel Lehoa eta Euskaltel Nazionalak berazentzat da, abenduaren 31a eta urtarrilaren 31a bitartean telefono finkoetan egiten diren zozketak. Ez dira sartzen espazio mugikorrerako dirak, telef. gogorretako, sare adimendunak eta datu-konexioak.

60 minutu dituzu doan hitz egiteko; baina itzazu nahi duzun bezala.

Zure semearentzat. Zure nagusiarentzat. Nahi duzunarentzat. Aurtengo Eguberrietan, telefono finkoa Euskaltelen beldin baduzu, 60 minutu izango dituzu estatuko eta nazioarteko finkoetara doan deitzeko. Bana itzazu nahi duzun bezala, eta zoriandu zeure etxekoak.



paperxulo

Zorionak!

Kale berria, 36 behe Villabona

Tel.: 943 69 37 84

paperxulo@hotmail.com

Opari artikulua

Peper-gauzak

Planoen kopiak

Liburuak

KIMETZ

GAZTE ARROPA

Nagusia, 23 TOLOSA

Tel.: 943 67 38 62

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Pisua, Tolosan, esneinatuko dagoen pisu berria alokatzetan da. 943 69 74 37.

LANA

Gidaria. Gidariak, erakunde publikoetarako. Deltu 943 44 48 66a.

Sukaldaria. Sukalde laguntzaileak, eskolalarako, udalaberrirako. 943 44 48 66.

SALGA

Loredena. Loredena eskualdeko lasarten: 30 urte baino gehiagoko jardura, materiala eta gaiti. 943 36 75 75/ 626 50 56 89.

Artoa aletzeko makina. Artoa aletzeko makina bat erosko nule. 662 34 89 36.

Autoa. Ford sort autoa 1.800 TD salgai. SS-BC matrakila. Deltu 943 66 50 89a.

aukerak zabaltzen

3G

19€

3G

36€

Deltu S.A.

San Francisco, 14 Tolosa

943 44 48 66

HEZKUNTZA ▶

LEIRE MONTES

Semaforoa berde dago, baina segituan laranja koloreak gorri jarriko dela ohartarazten digu; auto-entzatzat gorria, eta aldi berean oinezkoentzatzat berdea. Kiroldegiko argiak egunero ordu berean pizten dira, eta baita itzaldutako ere. Enpresa bateko makinak badaki non, noiz eta nola jarri behar dien tapoia botilei, paketatutako... Hauek guztiak ohiko gertaerak dira guretzat egunerokotasunean. Baina norbaitek egin du lan aurretik dena zehatz-mehatz hala gerta dadin. Eta ez da lan makala.

Horretan ari dira trebatzen Jon Arregi (Tolosa, 1984) eta Borja Aranzabe (Villabona, 1985). Regulazioko bigarren urtean ari dira ikasten, goi mailako zikloa, Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan (LHI). «Garai bateko koadro elektriko handiak tresna bixi bihurtzen ditugu, eta horiek programatzeko ikasten dugu, funtzio zehatz bat bete dezaten». Enpresetako kate-produkzioa edo serie-fabrikazioa jartzen diote adibidetzat arlo horretan ezjakintasun handia duen kazetariari, egiten dutena uler dezan.

Pneumatika, elektronika, hidraulika, automatismoak, programazioa... lantzen dituzte eskolan. «Berez ikasketak gogorak dira, baina guk gustuko ditugu. Gainera, Mantenimendua ikasi genuen biok, eta asko lagundu digu horrek: alde batetik, ikasgaiak baliozkotzeko; eta, bestetik, aurretik ikasita koaz baliatzeko», dio Arregik.

Ikasitako guztia praktikan jartzeko aukera ere izan dute. Haien eskolak proposatuta, Mekatronika izeneko lehiaketan parte hartu dute, BECen (Barakaldo, Bizkaia), eta laugarren postua lortu dute, gainera. «Mundu mailan beti egin izan da lehiaketa, baina Espainiak aspaldi utzi zion parte hartzeari, maila baxuagatik. Euskal Herrian berreskuratu nahi izan dute, hemen maila ona delako. Lehiaketako irabazleak, hala, Euskal Herria ordezkatzeko luke nazioarteko topaketa horretan», azaldu du Aranzabek.

16 bikotek hartu zuten parte Mekatronikan, Euskal Herriko 15 eta Mexikoko 1. Bi multzotan banatuta, lau egunez aritu eta zortzi talde sailkatu ziren finalera. «Plataforma bat eman ziguten, hutsik, eta estazio bat muntatu eta programatu behar genuen. Denoi material eta despieze berdinak eman zizkiguten, eta epe baten barruan gure abilezia erakutsi behar genuen», dio Arregik. Aranzabek esandakoaren arabera, zenbait ardatz hartu zituen kontuan epaimahaiak: «Alde

Buruari bueltak ematen

Mekatronika lehiaketan, estazioak muntatzen eta programatzen, laugarren izan dira Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko Borja Aranzabe eta Jon Arregi



Ezker-eskuin, Borja Aranzabe billabonatarra eta Jon Arregi tolosarra. L. MONTES

JON ARREGI

REGULAZIOKO IKASLEA

«Pozik gaude lan ona egin dugulako, baina presioa eta irakasleen arteko lehiakortasuna ez zaizkigu gustatu»

BORJA ARANZABE

REGULAZIOKO IKASLEA

«Zertan aritu nahi dugun? Ez legoke gaizki programatzen lan egitea, edo makinaren mantenimenduan...»

batetik denbora, nor zen azkarrera; baina azkar bukatzeak ez zuen ezertarako balio beste guztia ez bagenuen betetzen. Estazioa ondo egin behar zuen, montajearen txukuntasuna zen gakoa, eta programazioan haiek emandako sekuentzia bete behar genuen».

Esperientzia gazi-gozoa

Zapore gazi-gozoa utzi die esperientziak bi gazteei. Lehen aldian izan da haientzat, eta laugarren sailkatzea lortu dute. «Alde horretatik pozik gaude, oso maila ona zegoelako, eta lan txukuna egin genuela iruditzen zaigulako». Baina kexu ere badira. «Lehen aldian zen lehiaketa antolatzen zutena eta, egia esan, nabaritu da eskarmentu falta hori. Adibidez, finaleraino eta finaleko hirugarren proba-raino lehen postuan ginen; hirugarren proba horretan gaizki egin zegoen sensore bat eman ziguten, eta kalte handia egin zigun horrek. Kexatu egin ginen, baina ez zuten gure erreklamazioa onartu nahi izan», dio Arregik.

Presioa eta irakasleen arteko lehiakortasuna ere salatu dituzte. «Eskola desberdinetako irakasleek osatzen zuten epaimahia, eta bakoitza aztertzean eskola horretako irakaslea balorazioa egiteaz kanpo geratzen zen; guri buruz, adibidez, gure irakasleak ezin zuen ezer esan. Lehiaketa handia sortu zen haien artean, gehiegizkoa, ez zitzaigun gustatu. Bestalde, gehienek faboritotzat jotzen gintuzten hasieratik, eta presio horrekin lan egitea zaila zen», dio Aranzabek. Azkenean Eibarrek irabazi zuen, Bergara izan zen bigarren, Mungia hirugarren eta Tolosa laugarren.

Ikasitakoa praktikan ahal izango dute aurrerantzean ere bi gazteek, udaberrian praktiketan hasiko baitira. Aranzabek kanpora joateko asmoa du, Leonardo proiektuaren bidez; Arregik inguruen egingo ditu praktikak. Lan munduan ere hasi dira pentsatzen. «Zertan aritu nahi dugun? Egia esan, esparrua oso zabala da... Ez legoke gaizki programatzen lan egitea, edo makinaren mantenimenduan...», dio Aranzabek. Nork daki, agian etorkizunean gure herriko semaforoei, edo argiek, edo enpresetako makinak haiei esker funtzionatuko dute...



Bi gazteak estazioa montatzen eta programatzen, lehiaketan. HITZA

GIZARTEA ▶

Errepideko arriskuetatik kanpo

Bidegorri berriak Alegia, Ikaztegieta eta Tolosa elkarrengandik 'hurbilago' egotea ahalbidetu du; oinezkoek zein txirrindulariek lasaiago ibiltzeko aukera dute orain, autorik eta kamioirik gabe



Koadrillan kontu-kontari joateko aukera polita eskaintzen du bidegorriak. HITZA

JULEN GOIKOETXEA

Urteetan atzera egin behar da Tolosatik abiatu eta Alegiatik pasatuz Ikaztegiataraino iristen den bidegorriaren proiektuaren sorrera aurkitzeko. Denbora pasa ahala ordea, hasieran paperean zegoena itxura hartzen joan da eta gaur egun ia-ia posible da Tolosatik Ikaztegieta oinez edo bizikletaz joatea errepide nagusiek sortarazi ditzaketan arriskuak ekidinez. Ia-ia diogu zati txiki bat bakarrik falta baita egitasmoa osaturik ikusteko; Altxo-Azpiko bidegurutzetik Iberdrolako zentralako ingururaino doana, hain zuzen ere. Bertatik igaro daitekeen arren, oraindik ez dago errepidetik banatuta, beste zati osoan dagoen bezala.

Lanak hasi aurretik, bidegorriaren eraikuntza ezinbestekoa zela zioen jende askok, horrela beste herrietara autoa, tren edo autobusa hartu beharrik gabe, oinez edo bizikletaz joateko aukera izango zela inguru dotoreak ikusiaz. Baina, behin Alegia eta Ikaztegieta bitarteko lanak amaitu zituztenean, askorengan nola baiteko nahasmena sortu zuen bidegorriaren erabileran lehentasuna nork izango zuenaren inguruan. Izan ere, gorritz

margotutako pasabide bat zen, errepide nagusitik pibote batzuen bidez bereiztua. Baina ez zegoen norabide bakoitzerako karrilik lurrian margotuta. Horren zergatia ordea ondokoa zen: tarte horretan, bidegorriak ohikoek baino zabalera txikiagoa zuen eta horregatik, ez zegoen nahikoa toki norabide bakoitzerako karril bana margotzeko. Baina hasiera hartan nahasmena ez zen horretara mugatu. Hainbat oinezko ere bidegorritik ibiltzen hasi ziren eurentzat seguruagoa zelako-

an, baina lehentasuna txirrindularientzat zela jakitean, oinezkoek ohiko bidetik ibiltzeari ekin zioten berritoki edota bidegorriaren bazter-bazterretik ibiltzen dira, hainbatek egiten duten moduan.

Hasierako gaizki ulertu horiek ahaztuta, gaur egun bidegorriak duen erabilpen maila oso altua dela esan daiteke. Badirudi jendea asko gustatu zaiola paseorako edota bizikletaz ibiltzeko sortu den aukera berria. Esaterako, tolosar asko joaten dira orain ohiko paseo-

txoa egitera Alegiara, Tolosako ohiko bueltatxo egin ordez; eta gauza bera gertatzen da alegiarrekin edo ikaztegiarrekin ere. Korrikalarien joan-etorria ere nabarmena da bidegorrian. Asko eta asko izan dira azkenaldian, Behobia-Dornostia lasterketa ezaguna aitzakiatzat hartuta, paraje berrietatik entrenatzen ibili direnak. Hainbat tolosarren kasuan, Anoetako bidearen alternatiba izan da. Gorputzari astindua emanez Tolosatik Ikaztegiatarainoko joan-eto-

rria egin dutenak ere izan omen dira.

Bidegorriaren eraikuntzarekin, orain arte bide bazterretik ibiltzen ziren oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna ere bermatu dela esan daiteke. Bidegorriaren ohiko erabiltzaile batek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI adierazi dionez, «orain ez dago etengabe aurrera eta atzera begira joan beharrik auto eta kamioien beldur; gainera, lehen eguna iluntzen zuenean ezinezkoa zen errepidean ibiltzea». Baina gaur egun beraien bidea errepidetik bereizita dagoenetik, posible dute ilundu ondoren ere ibiltzea; «eta hori gehienbat garai honetan, goiz iluntzen duenean, eskertzen da».

Etorkizunerako apostua

Klima aldaketaz, planetaren berotzeaz, berotegi efektuaz eta antzeko kontuetaz hainbeste hitz egiten den garai hauetan, garrantzitsua da bidegorriaren erabilera bultzatzea. Badirudi azken aldian jendea ari dela norberaren autoak etxean utzi eta garraio publikoaren aldeko apostua egiten. Hori urrats nabarmena dela ez dago ukatzerik, eta bat batean jendea ezin zaio beste aldatarik eskatu. Baina Europako herrialde askotako eredu geureganatzea ez litzateke txarra izango. Herrialde batzuetan, jendeak etxetik lanerako bidea bizikletaz egiteko ohitura du eta horrela kutsadura maila nabarmen murriztea lortzen da.

Beraz, bidegorrien erabilera norberaren osasunari onura egiteaz gain, ingurumenari ere mesede egiten dio. Hori dela eta, baliabide horietaz aprobetxatzea aukera egokia izan daiteke, beti ere, horretarako aukerak baldin badaude. Izan ere, distantzia luzeegiak egitea ezin zaio eskatu jendea, baina ibilbide laburretarako ez da aukera txarra. Oraindik ohitu beharra dagoela ukaezina da, baina etorkizunean Alegiatik Tolosarainoko bidea edota alderantzizkoa bizikletaz egiten ohitzera ohitura onak hartzen hasi izanaren seinale izango da. Lortzen ez bada, igandeetako hamaiketako ohiko tokian egin ordez, paseotxo bat emanez ondoko herri-raino joan eta bertan egin ahal izateko aukera paregabea eskaintzen du bidegorriak.



Argazkian ageri diren bezalako parajeetaz gozatzeko aukera du bidegorritik igarotzen den orok. HITZA

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...